

### II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

#### AMURRIKO UDALA

##### **Amurrioko udalerriko herritarren parte hartzea eta udal gardentasuna sustatzeko zerbitzua kontratatzeko lizitazioa**

Alkatearen 2016ko abuztuaren 30eko 16-252L Ebazpenaren arabera, iragarki honen bidez lehiaketarako deia egiten da, Amurrioko udalerriko herritarren parte hartzea eta udal gardentasuna sustatzeko zerbitzua kontratatzeko, datu hauekin bat etorritz:

1º. Erakunde esleitzaila:

- a) Erakundea: Amurrioko Udala.
- b) Espedientea izapidetzen ari den bulegoa: Auzoak eta Berrikuntza Demokratikoa
- c) Espediente zenbakia: 16007L78.

2º. Kontratuaren xedea:

- a) Mota: zerbitzuak.
- a) Xedearen azalpena: herritarren parte hartzea, kontu publikoen berri ematea, gardentasun neurrien diseinu eta gauzatzea eta Amurrioko Udalaren Parte Hartze eta Berrikuntza Demokratikoaren Arlorako lankidetzatza publiko-pribatuaren bitartekoen hobetzea sustatuko duen zerbitzua eskaintzea.

b) Gauzatzeko lekua: Amurrio.

d) Iraupena: 2 urte.

e) Luzatzeko aukerak: urtebete.

3º. Izapidetzea eta prozedura:

a) Izapidetzea: arrunta.

b) Prozedura: irekia.

c) Esleipen irizpideak.

— Balio judizio baten arabera neurtzen diren irizpideak: 34 puntu.

— Formulak aplikatuz automatikoki baloratzen diren irizpideak: 66 puntu.

4º. Kontratuaren prezioa: 55.910,40 euro urteko, eta dagokion BEZa (ehuneko 21).

5º. Bermeak:

Behin betikoa: esleipenaren zenbatekoaren ehuneko 5, BEZa aparte.

6º. Dokumentazioa eta argibideak eskuratzea:

a) Erakundea: Amurrioko Udala.

b) Helbidea: Juan Urrutia plaza, zk.g.

c) Herria: Amurrio.

d) Telefonoa: 945891161

e) Kontratatzaillearen profilaren helbide elektronikoa: [www.amurrio.org](http://www.amurrio.org).

f) Posta elektronikoko helbidea: [nllorente@amurrio.org](mailto:nllorente@amurrio.org)

g) Agiriak eta argibideak eskuratzeko eta eskaintzak aurkezteko azken eguna: eskaintzak aurkezteko azken eguna.

7°. Eskaintzak aurkeztea:

a) a) Eskaintzak aurkezteko azken eguna: 20 egun natural, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera kontatuta. Aurkezteko azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna bada, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da epea.

b) Aurkeztu beharreko agiriak: administrazio klausula berezien agiriaren 14 klausulan eskatutakoak.

c) Eskaintzak aurkezteko lekua: udalaren erregistro orokorra, udaletxean bertan.

8°. Eskaintzak irekitzea:

a) Erakundea: udaletxea. Ekitaldi aretoa.

b) Helbidea: Juan Urrutia plaza, zk.g.

c) Herria: Amurrio.

d) Eguna: "B" gutun azala eskaintzak aurkezteko epea bukatu ondorengo hamargarren egun balioduneko 10:00etan irekiko da ekitaldi publikoan. Eskaintzak irekitzeko eguna larunbata bada, ekitaldia hurrengo egun baliodunera arte atzeratuko da (gehienetan astelehena).

9°. Iragarkiaren gastuak: esleipendunak ordainduko ditu.

Amurrio, 2016ko abuztuaren 30a

*Alkatea*

*M. JOSUNE IRABIEN MARIGORTA*